

Nu!



Haur Eskolak Guraso
Eskola jarri du martzan



Lokalak etxebizitzan
bilakatu ahal izango dira

EUSKAL HEZKUNTZA

KONSTITUZIOA

Z



EZEK ENL EK EKIMEN

Txirrikitutik !

Antzeko argazki zahar baten bila saiatu banaiz ere, **A**ez dut gustukorik topatu eta hauxe jartzea erabaki dut. Berau berri-berria izanik ere, azken erabakien arabera historikoa gerta baitaiteke. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak orain egun batzuk hasieraz onartu berri duen Trenbideen Arloko Planean, trenbidea Txokoaldeko kaxkotik kentzea aurreikusten baita Donostia-Zarautz trenbidea bikoizterakoan. Bertan zehazten denez, egungo trenbidea, bi errailetako 350 metroko tunel batek ordezkatu luke. Oriotik letorkeen trena, Torreana baino lehen San Esteban azpi aldera sartuko litzateke, Santuenea aldetik gaur egungo tunelaren parean atereaz. Txokoaldekoek eskertuko dute, seguru. Lasaitasunaz gain, argazkiko tunelak eta trenbide zaharrak bestelako aukerak eskainiko litzuzke dudarik gabe. Beste kontua, ordea, guzti hori noiz egingo den da. Badirudi trenbidea Zarautzeraino bikoizteko asmoa benetakoa dela; dagoeneko Añorgara bitartean bikoiztu dute baina ... Txokoalde oraindik urruti.

Zalao Arnaiz Ibarguren



Egilea: Z.A., 2004, Txokoalde

Jabea: Z.A.

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieto, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Laster, lokalei erabilpen berri bat emateko aukera izango da

Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

LOKALEN IZAERA ALDATZEKO AUKERA _____ 10. ORR.

Laster, indarrean izango da lokalak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza. Baldintza nagusiak bildu ditugu.



UGARTE, JOSANTON ARTZEREN BEGIETAN _____ 12. ORR.

OTSAILAREN 20AN, BOZKETA EGUNA _____ 14. ORR.

GURASOAK ERE, ESKOLARA _____ 18. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AINHOA AZPIROZ

Kontatu didate

*Kontatu didate Nueva Yorken
Broadway eta 26 karrikaren kantoian,
negu gorrian, gizon batek gabero
jendeari otoi eskatzen
aterbea bilatzen duela
bilutsirik daudenentzat.*

*Kontatu didate Usurbilen,
634 errepidean, Etxealdiako zubipean,
negu gorrian, herritarrek
arduradunei otoi eskatzen
aterbea bilatzen dutela
babesik gabe daudenentzat.*

Usurbilgo autobus geltokiarena ez dakit komikoa edo tragikoa den. Baina lotsagarria behintzat bai. Momentu honetan Usurbildik Donostiarako norabidean geltokirik gabe gaude. Autobusak Etxealdiako zubipean gelditzen dira, hori bai, baina hortik "geltokia" han dagoela esatera alde handia dago. Ez dago ez seinalerik, ez markesinarik, ez babesteko lekurik. Jendea han pilatzen delako jakin liteke autobusa han gelditzen dela. Eta hori egunero dabilenak

daki. Zeren, autobusa tarteka hartzen duen horietakoa baldin bazara, edo geltoki bila dabilen kanpotarra... ondo informatu, bestela... autobusak alde egingo dizu!

Imajinatu momentu batean egoera: goizeko lehen orduak, negu gorria, izotza zuri-zuri edo haizeak aldamenetik jotako erauntsia, 634 errepideko kamioen joan-etorriek uzten duten "frexkura" etengabea, eta zu han, ahotik lurruna dariola edo aterkiaren eta haizearen arteko borroka dominatu ezinik. Ez markesina ziztrin bat, ez teilatu soil bat, ez toldo zahar bat, ez eraikuntzako langileek edukitzen duten txabola txiki bat... ezer ez. Itxaroten pasa beharreko minutuak bakarrik. Eta horrela, noiz arte?

Ulertzekoa da geltokia lekuz aldatzea. Obragatik edo dena delakoagatik beste toki bat egokiagoa baldin bada, konforme. Baina, gutxienez baldintza egokietan jarri, ezta? Gauza batzuk ez dira asko aldatzen. Orain dela urte batzuk Ibaetako campusean herri guztietako autobus geltokiak ondo seinalatuta omen zeuden. Eta Usurbilgo autobusa, berriz, "hango arbola hartan" gelditzen omen zen.

Marka da gero, beti horrela ibili behar izatea. Eta gainera, garraio publikoa bultzatu nahiko da! Barregurea ala negargurea, zer ematen dizu zuri?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Zumeteneko Inaxiri

Bere sendiaren baimenarekin eta atrebentzia pixka batez hil berri zaigun Zumeteneko Inaxiren mirespenez eta gorazarrez lerro batzuk utzi nahi ditut eskribittuta, gaurkook gogora dezagun eta biharkoek jakin dezaten.

Izan ere, Zumeteneko Inaxi, pixka bat denona ere izan dela iruditzen zait. Eta horren harira gogoeta hau egin nahi dut: ondo dakigu denok euskal sukaldaritzak lortu duen mundu mailako fama. Egia esan, ez daukat horren kontra ezer, ez

horixe. Halere, horrekin batera argi eta ozen esan behar dugula iruditzen zait, gure sukaldaritzari iritsi den mailara iritsi bada urte askoan eta askoan Zumeteneko Inaxiren eta bera bezalako beste hamaika emakumeren lan isilari esker izan dela.

Zenbat aho goxatu ote dira urte haue-tan guztietan Inaxik horrenbeste kariñoz prestatutako kaxuelitak janda?

Esanda gera bedi, beraz, Zumeteneko Inaxirenganako gorazarre hau bera eza-gutzeko ohorea izan genuenon partetik.

Besarkada bat sendi osoari eta zuri, Inaxi, ez adiorik.

Inazio Usarralde

NOAUA!ren oharra: azken bolada honetan idatzi ugari iritsi da erredakzioara. Idatzi hau urtarrilean jaso bagenuen ere, ezin izan dugu lehenago argitaratu. Atzerapenak eragindako eragozpenengatik barkamenak eskatu nahi dizkiogu egileari.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Martxoak 4. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Otsailak 25.

Ika-mika!

Zure botua: Ez

Europar Batasuneko herritarrok ez edugu inolako aukerarik izan itun konstituzionalean parte hartzeko. Estatuetakoko gobernuek aukeratutako pertsonak idatzi dute testua eta horixe da inposatu nahi dugutena. Eta informazio falta ere ez da kasualitatea, oinarriko eskubideetan atzerapauso handia ekarriko duela ezkutatu nahi dutelako.

Telebistako iragarkien hitz politikorien atzean, testuak lan eskubidearen orde, "lan egiteko eskubidea" dakar, enplegu osoaren orde, "enplegu maila altua"; etxebizitza duinaren eskubidea "etxebizitza laguntzetara" mugatzen du; oinarriko errentarako eskubidea "laguntza sozial batera" murrizten du; zerbitzu publikoak "interes ekonomiko orokorreko zerbitzu" bihurtu eta pribatizazioaren esku uzten ditu.

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna "bultzatzeko helburutzat"

hartzen du, eta ez eskubidetzat, beraz, Estatuak ez daude hori errespetatzera beharturik. Genero indarkeria aipatu ere ez da egiten.

"Estatuen lurralde osotasuna bermatuko du", hau da, autodeterminazio eskubidea guztiz ukatzen du. Ofizialak ez diren hizkuntzen erabilera bermatzeko neurri legal bat ere ez du ezartzen.

Etorkinei ateak guztiz itxi eta NATOren estrategiaren menpeko potentzia militar bihurtu nahi du Europa.

Europako Estatuak eta multinazionalen arteko aliantzaz eraikitako Europa da. Politika ekonomikoa, merkantzien, kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio askea merkatuak agintzen du, eta dena babes sozialaren eta kalitatezko zerbitzu publikoen kontura.

-Herrien Europa soziala eraikitzeko. Zure botua: Ez.

-Giza eskubideak, eskubide sozialak, kulturalak eta linguistikoak defendatuko dituen Europa eraikitzeko. Zure botua: Ez.

-Oinarriko eskubideak-babes soziala, lan duina, osasuna, hezkuntza, etxebizitza...- bermatuko dituen konstituzio-prozesuaren alde. Zure botua: Ez.

-Partaidetzako demokrazia, ondasunen banaketa justua, ingurumena eta garapen ekonomiko eredu soziala helburu izango dituen konstituzio-proiektuaren alde. Zure botua: Ez.

-Emakumeen eta gizoneen eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duen konstituzio-proiektuaren alde. Zure botua: Ez.

-Herriek euren etorkizuna erabakitze-ko eskubidea daukatela aitortuko duen konstituzioaren alde, inork eskua sartu barik autodeterminaziorako eskubidea izan dezagun. Zure botua: Ez.

Usurbilgo LAB sindikatua

Ika-mika!

Europari bai, Europako "konstituzio" honi ez

Hona 13 arrazoi Europako "konstituzio" honi ezezkoa emateko:

1. Bozkaturiko duguna konstituzioa ez baizik tratatua delako. Aurreko tratatuen jarraipena da, ez du suposatzen Maastrich-en hartutako ildo ekonomikoa eta politikoagandik inolako hausturarik.

2. Emaitzak axola ez duelako. Ez du izatera konstituentierik, horrela balitz, besteak beste, Europako hiritar guztiek berretsi beharko genuke, eta ez da hori gertatuko, erreferenduma ez da leku guztietan egingo.

3. Europa itxi eta baztertzaila izateaz gain, etorkin fluxuen aurrean kontrol polizial errepresiboa lehenesten duelako. Berriz ere entzungor egin zaio etorkinen integrazioaren aldeko politikak egitea aldarrikatzen dugun Europar gizarte-ko sektore zabalei.

4. European modu legalean egotea lortzen duten etorkinak bigarren mailako hiritar izaten jarraituko dutelako. Ez dute europar hiritartasuna eskuratzeko inolako modurik, ezta epe jakin bat pasa ondoren ere. European bizi, European lan egin, baina eskubide politikorik inoiz izango ez duten hiritarrak izango dira.

5. Europa neoliberal baten eredu ekonomikoa bultzatzen duelako. Helburu nagusia merkatu bakar bat sendotzea eta kompetentzia librea bermatzea da.

6. Politika monetarista mantentzen duelako. Gainera, politika horren ardura-dun nagusia Europako Banku Zentrala da, botere eta kontrol politikoei ihes egiten dion organoa eta izugarriko boterea duena.

7. Kohesio politikak ez daramatelako beraiekin aberastasunaren banaketa. Europar Batasuneko Barne Produktu Gordinaren % 1,27 baino ez da horretarako aurreikusten.

8. Eskubide sozialak eskubide ez direlako. Batetik, oinarriko eskubideak daude (politikoak, zibilak, patrimonioak) eta, bestetik, sozialak printzipio soil izatera pasatzen dira. Nabardura txikia dirudien arren, Europako Estatu gehienek konstituzioak baino askoz ere atzerakoia eta liberalago egiten dute itun hau.

9. Europar Batasuna estatuek egiten dutelako. Subjektu bakarrak estatuak dira, pisu gehien duen organoa, berriz, Ministro Kontseilua izaten jarraitzen du,

Komisioa eta Parlamentuaren gainetik.

10. Estaturik gabeko nazioak errekonozitzen ez dituelako. Gainera, Europaren eredu honek, praktikan, botere legegilea duten nazio eta erregioen ahultzea dakar, hauen kompetentziako gaiak ere estatuen esku geratzen baitira.

11. Hizkuntza minorizatuen ofizialtasuna onartzen ez duelako. Egoera honek, hizkuntza horien ahultze-prozesuari laguntzen dio.

12. Europa militarizatu baten aldeko apustu nabarmena egiten duelako.

13. Edozein eredu balio ez duelako; bestelako Europa (aniztasun kultural eta nazionala errekonozitzen, herritarren partehartzea bideratzen, aginte organo berritan demokratikoak bermatzen, politika soziala bultzatzen, kanpotik datozenei errespetuz tratatzen duena) egitea posible delako; bestelako Europa bat egin nahi dugulako.

Hau guztiagatik, eta Europar Batasunaren aldekoak izan arren, "konstituzio" honi ez.

Usurbilgo Aralarkideak



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Ilusio zapuztuak

Oraingo honetan berri txar batekin natorkizue. Izan ere, ilusio handiz eta esperantzaz beterik, Bekoerrotan baserrian babes ofizialeko etxebizitzak egiteko sinadurak bildu eta Udalarik *pelmada* handia eman ondoren, etxerik ez omen dutela egingo esan digute. Badirudi, gainera, erabaki honek ez duela atzera bueltarik.

Artikulu honen aurretik idatzi nuen kronikan jakinarazi nizuenez, Bekoerrotako sutea baino aste pare bat lehenago, Zatarainek (Bekoerrotako jabeak) etxebizitzak egiteko proposamen berri bat azaldu omen zion Udaletxeari eta Udaletxeak hilabete baten barruan erantzun bat emango omen ziola agindu zuen. Bada, itxura denez, Udalak Zataraini erantzun bat eman baino lehen eta Bekoerrotan errez geroztik, Zatarain berriz ere Udalarekin jarri zen kontaktuan eta hemen dator gure esperantza guztien muga pasaezina; ez omen du Zatarainek ezer egiteko asmorik etxe horrekin. Badirudi Bekoerrotan errearekin batera, lehen etxebizitzak egiteko zituzten proiektu eta proposamen

guztiak ere erre egin direla. Beraz, gure ilusio eta esperantza guztiak zapuztuta geratu dira.

Desilusio hau inork kenduko ez digun arren, badakit ahal dugun guztia egin dugula Bekoerrotan etxe berriak eraiki daitezten eta nik bezala niri lagundu didaten guztiek ere badakite hori. Ezin ahaztuko ditugu duela 20 urte baino lehenagotik etxe horien gauzatzea bultzatu duten guztien ahaleginak ere.

Bekoerrotako proiektuak jada etorkizunik ez duenez, Udalak agindu zigun saiatuko dela Txokoalden etxebizitza berriak egiteko beste lekuren bat bilatzen, eta leku aproposik aurkituz gero, izango omen dugu proiektuaren berri. Ea egia den eta gazteok auzotik atera beharrik izaten ez dugun gure etxebizitza izateko.

Etxebizitzaz gain, aipatu baita ere, haurren jolas parkeko txirristara igotzeko 4 eskaileratetik 3 hautsita daudela eta, hurrena, udaletxera jotzen dugunean emango dugu honen berri.



BEGOÑA
REKONDO

Kaleberri

Garraio publikoa

Azkeneko NOAUA!n Nere Kortak esaten zuen bezala, garraio publikoa bultzatu behar dugu. Hortarako zerbitzu on bat eman beharra dago. Herritarren joan-etorriak errestu egin behar dira. Adibidez, geltoki txukun batzuk jarrita (erdigunean, Musika Eskolan dagoenak pena ematen du), leku egokitan kokatuak egotea, aterpearekin (askotan ikusten da jendea Txikiardiko geltokian ez aterpe, ez argi gauean), eta abar.

Esaten denez, Kale Nagusiko obrak bukatzen dituztenean, Eusko Treneko geltokiak aldatu egingo dira. Batzuk esaten dute autobusa ez dela herri erditik pasako; beste batzuk, baietz. Uste dut eskatu beharra zaiola Eusko Treni bezeroarengan pentsatzeko eta ahal duen aldaketa egokia egiteko.

Hau da, garraio publikoa denez, zerbitzu on bat ematea herritarrei. Ahalegin honetan, gai hau daramaten instituzioek ere, indar berezia egin beharko lukete: Udaletxea, Foru Aldundia



edo Eusko Jaurlaritza. Honekin lortuko genuke garraio publikoa bultzatzea eta gure ingurugiroa hobetzea. Bada, Euskadi ere ados dago 2005an sinatuko den Kyotoko protokoloarekin: 2005etik 2012ra arteko tarte horretan atmosferara botatzen ditugun gas txarrak %5,2an jaitea. Eta hau denen eskuetan dago: gurean, autobusak eta trenak gehiago erabiliz, Eusko Trenek zerbitzu hobea emanaz eta Udaletxean ahal den guztia egitea, dagokionarekin hitz eginez.

Herri bakoitzetik, mendi bat ordezkari

Kaixo irakurle, oraingoan auzoarekin zer ikusirik ez duen gai batekin natorkizue.

Hilabete barru, martxoaren 20an izango den mendi zeharkaldi baten berri ematera hain zuzen. Euskal presoak euskalherriratzea eta jasaten duten dispersioaren aurkako ibilaldia izango da. Buruntzaldeko udalerriak hartuko dute parte; Etxeratlekin batera, herri bakoitzeko mendi elkarteak antolatzaile-laguntzaile lanetan arituko direlarik. Alde batetik Urumea ingurukoak (Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Lasarte-Oria); bestaldetik, Oria ingurukoak (Orio, Añorga, Usurbil, Andoain eta Lasarte-Oria). Oriotik aterako den ibilaldia, hauxe izango da: hondartzatik Kukuarrira igo, zehar-zehar Mendizorrotzera, Artikula Haundi, Arratzain Berri eta Egiluze Haunditik pasa ondoren, gainbehera kaxkoraino iritsiko da. Andatza igo Ermotegitik barrena eta Ziortzatik Belkoaiñera, Andoaiñe jeitsi eta harrobitik gora Buruntzara. Ondoren, Plazaola trenbidea hartu eta Teresategin bukaera.



Arratsaldez elkartuko dira Oria eta Urumea ibilbidearen bi adarrak, bertan Lasarte-Oriakoak ziren eta semea bisitatzera zihoaztela kotxe istripuz hil ziren ama-semeari omenaldia egingo zaielarik.

Ibilaldian zehar, Etxeratlek hamaiketakoak eta firma biltzea egingo du puntu jakin batzuetan. Hau esanda, hasi prestatzen eta xehetasun gehiago berri ematera etorriko natzaizue.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

San Balentin Deuna

Otsailean sartu gara eta ospakizunekin aurrera joanez, atzean utzi ditugu Kandelari, Santa Ageda eta Iñauteri jaiak. Esan behar, oso aste berezia izan dela, aurten bata bestearen atzetik eta oso gertu suertatu dira, eta ondorioz, ondo girotzeko astirik ez dutela izan. Hala ere, eguraldiak asko lagundu duenez, ondo pasatzeko modua izan dugu, bertan murgildu nahi izan dugun guztientzat. Tolosaldera joan eta bertan gozatuaz ibili direnak eta baita Donostian ibili direnak ere.

Hemen, auzoan, ausartu direnak haurrak izan dira. Hauek izan dute eragina Ikastolatik, Santa Ageda ospatu zuten. Makila eskutan hartuta eta kanta ederrak abestuz euskaldun jatorren giroan ibili ziren.

San Balentin eguna ere hemen izan dugu, egun berezia bikoteentzat. Oparitxoren bat elkarriz eskainiaz, mila erataria eman daitezke zorionak, agian laztan batez, lore sorta baten bidez, afari erromantiko batez edo sakeleko mugikorretik mezu goxo batez. Modu guztietara ere, egun berezi hori ahalik eta ondoen pasatzea izaten da kontua.

Garizuman ere sartuak gara eta hausterre eguna ere



ospatu ahal izan dugu. Haurrak ere izan dute beren giroa.

Gaiaz aldatuz, mezu bat luzatu nahi diet auzoko txakur jabeei. Inguruko zelaiak belar eta lore txuriz jantziak daude baina, eserlekuetara hurbildu edo haurrekin gerturatzu gero loreak ikustera, zakur arrastoz beteak daudela ohartzen zara. Horretarako poltsak daude jarriak, beraz, arreta pixka bat jartzea eskatzen zaie mesedez. Denen onerako izango da.

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA



PAKO
AGUDO

Santuenea

Yoga eta dantza ikastaroak

Kaixo, aurtengo neguak argi dago ez gaituela utzi nahi. Baina eguraldiari aurre egiteko aukera politikak ditugu orain auzoan. Gure parke berriaz gozatzeko udaberria iritsi arte itxaron behar badugu ere, azken aste hauetan oso aipatuak izan diren ekintza berrietan parte hartzeko aukera paregabea dugu!. Dagoeneko martxan dira yoga eta dantza ikastaroak.

Yoga ezagutzen ez duzuenoi gonbidapena luzatu nahi dizuet. Ez dauka adin mugarik, ez eta beste ekintza fisiko batzuk eskatzen duten prestakuntzaren beharrik. Beraz, edozeinek parte har dezake gorputza berpizteko eta burua lasaitzeko primeran dator-eta.

Dantzan ere fin dabilta, gainera auzotar bat dutela irakasle, Edurne Ferreira. Momentuz, *sal-san* eta *merengean* murgildurik daude, baina, denborarekin beste estilo batzuk ere jorratuko dituzte. Dantzan, oraingoz, arazo bakarra, arazoa bada, mutil falta da. Non dira Santueneko



mutil eta gizon alai eta dantzazaleak?

Neguak uzten ez gaituenez, bitartean egunak aprobetxatu, orain aukera dago eta. Gainera orain sagardotegi garaian gaudela eta auzoan sagardotegia izanda, zer gehiago behar? Ea auzoko gazteak ere bere gurasoen antzera beren ekin-tzak antolatzen hasten diren, pena da auzoko gazteriak inon parte ez hartzea, ez festetan ez beste ekintzetan.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Gogor dabil haizea

Hemen naiz berriz ere gure auzoaren berri zuei emateko asmoarekin. Eta beste hainbatetan bezalaxe, zer kontaturik ez dudala gertzen naiz, izan ere, mugimendu gutxi izaten da urte parte honetan hemen goian, eta jende gutxi eta arazo gehiegirik ez dagoenean, kontatzeko larre ez da izaten, baina zerbait bururatuko zait.

Azken aldi honetan eguraldia nahasita dabilki-gu eta guk, zorionekoak, hemendik, tontorretik, hainbat Usurbil ikusteko aukera izan dugu. Lehengo batean iratzarri nintzenez, leihoa argi berezi batek zeharkatzen zuen, argi zuri eta gogorra, eta berehala ezagutu nuen goiz elurtsua. Hainbat aldiz gozatu izan ahal izan dugu sententzio hori, umetan gehiago eta sakonago. Zenbat aldiz joan ote gara ohera hurrengo egunean belardiak zurituta egotearen esperantzarekin? Edo zenbat aldiz egin digu ihes irribarre batek leihotik kanpora behatu eta guztia izara zuri batek estaltzen zuela ikustean? Hau bera gertatu zitzaidan, beraz, lehengo egun hartan, argi berezi hura loge-

lan sumatu nuenean. Eta bai, elurra egin zuen, ez gehiegi, baina nahikoa horrelako txikikeriekin alaitzen dakitenentzat, eta ez asko, eguneroko bizitza jarraitzeko eragozpen gehiegi, guri behinik behin, jarri gabe.

Baina esan bezala, eguraldia azkar eta zeharo aldatzen zaigu azken aldiak, eta neguak duen eguraldirik xarmangarriena eskaini zigun orain pare bat egun. Egun eguzkitsua zen, kalera irten baino lehenago uzailekoa zirudien horietako bat, baina tranpaz bete, izan ere, atea ireki bezain laster sentitzen baitzen hotz sarkorra, graduak zero-ra gerturatzen direnekoa. Berokia, bufanda eta goanteak beharrezkoak ziren kalean ibili nahi bazen. Hala ere, ederra izaten da haize hotz hori aurpegian sentitzea, gorputza oihal lodietan babesten dugun bitartean.

Orain, idazten ari naizen bitartean, haizeak gogor jotzen du leihoko kristalen aurka, eta zuhaitz guztiak dantzan dabilta bere erritmo geldiezinean. Zer izango da bihar?

Orain 20 urtekoa

1985ko urtarrilean, Erregeen hurrengo astean egina elurtea ikusteko moduan zarete. Pasatakoa ahaztu egiten bazaigu ere, hemen daude orduko irudiak gogorarazten dizkiguten argazkiak. Intxaurretakeo bailara agertzen da goitik ikusita eta bide bazterretik bigarrena. Eta begiratu ondo ze burrunztiak dauzkaten eskutan hirugarren argazkian. Ezkerretik eskubira, Xabier, Inaxio eta Antonio Murua, Antonio Arrillaga, Toribio Arruti, "Txata" zaldia, Joan Joxe Lizarza, Joxe Luis Zaldua eta aurrean "Txiki" zakurra.



Aginaga



MARIA
ANJELES
ARRUTI



Festak eta eskola

Pasa da inautea, pasa da neguko festaldia. Heldu da, konturatzerako, udarako festak prestatzen hasteko garaia. Asmo horretan da Zubietako Herri Batzarra. Aurten, gainera, aldatetak izango dira Jai Batzordean. Urteak pasa ditu gazte-koadrilak festak antolatzen, baina, ardura eta zama astuna baita, nekea gailendu zaie. Horregatik aurten inoiz baino beharrezkoagoa da herritar guztien parte hartzea. Ez da prezisoa sekulako festak antolatzea. Zubietak ez du zertan herri handietako markak berdintzen ibili beharrik. Nahikoa litzateke, eta gustagarriagoa seguru asko, gure txikian, gure neurriko jaiak antolatzea. Baina horretarako Jai Batzorde berri bat antolatu beharko da, gazteen eta helduen artean osatutakoa. Bertan parte hartu nahi izanez gero, datorren otsailaren 25ean jarri da hitzordua. Egun horretan, ilunabarreko 19:00etan egingo da bilera, Zubietako udaletxean.

Jaiekin bezalaxe gertatzen zaigu eskolarekin ere: gure txikian, gure neurriko eskola nahi dugula.



Aurre-matrikula egiteko garaia iritsi da eta hasiak dira ikastetxe guztiak beren ohiko propagandarekin. Otsailaren 14an hasi eta otsailaren 25a bitartean dago irekita aurre-matrikula egiteko epea. Zalantzan edo erabaki ezinda dabilzanei Zubietaren aldeko aukera egiteko esango nieke. Eskolari ez badiogu bizirik eusten, nekez eutsiko diogu bizirik herriari.

Zubietak



XABIER
ARREGI

Laster indarrean izango da lokalak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza

Lokal huts ugari dago Usurbilen. Laster, akaso, ez dira hainbeste izango. Behin betikoz onartzean den udal ordenantza bati esker, lokal horietako batzuk etxebizitza izaera har dezakete. Baldintza jakin batzuk bete behar dira, ordea. Baina etxebizitza premian direnentzat aukera berri bat izan daiteke.

Aurreko batean, hutsik zeuden etxeak 200 bat zirela aipatu genuen. Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bidez, alokairuan jartzeko bideak zeintzuk ziren azaldu genituen. Honakoan, lokalen alternatibak sakondu nahi izan dugu. Herri askotan hasi dira lokalei etxebizitza erabilerara aitortzen. Era honetan, bi arazo konpondu daitezke: hutsik dauden lokalei erabilpen berri bat emateko aukera, batetik; etxebizitza eskuratzeko arazoa dutenei alternatiba berri bat eskaintzea, bigarrenik.

Lokalen kontu hau dela eta, usurbil-

dar batzuk dagoeneko egin dute Udaletxerako bidea. Badira gai honekin galdezka azaldu diren herritarrak. Oraindik inork ez du baimenik jaso, udal ordenantza ez baita indarrean sartu.

Laster onartuko du Udalak

Oraingoz, hasieraz onartu da hizpide dugun udal ordenantza berria. Beraz, oraindik ez du behin betiko izaera. Baina denbora kontua baino ez da. Gai hau laster pasako baita udalbatza plenotik. Plenoaren oneritzia jasotzen duenean, lokalei etxebizitza erabilerara aitortuko zaie. Lokal denei? Ez. Hasteko, udal ordenantzatik kanpo daude lur azpian dauden bajeak edo garajeak. Soilik beheko plantako lokalak egokitu ahal izango dira; azalean daudenak, alegia.

Baina, adi. Honek ez du esan nahi lokal denak automatikoki etxebizitza izaera hartzeko eskubidea izango dute-



UDAL ORDENANTZAK BEHEKO PLANTAKO LOKALEI BAKARRIK ERAGINGO DIE.

nik. Baldintza batzuk bete beharra daude, eta horietako asko uste baino zorrotzagoak dira.

Espekulazioa ekiditeko modua

Etxebizitza ugari eraikiko dira epe laburrean. Olarriondokoak egingo dira laster. Horietako asko babes ofizialekoak izango dira, baina ez denak. Ugartondon ere, etxe gehiago aurreikusita daude. Baina horiek iritsi bitartean, baten batek lokal bat erosi eta etxebizitza bihurtzeko tentazioa izan dezake. Izango da, halaber, egoera berriari probetxua atera nahi izango dionik.

Izan ere, etxebizitzetaz hitz egiterakoan, espekulazioa datorkigu burura. Beheko plantako lokalekin ere, espekulazioa eman daitekeela pentsa dezake batek baino gehiagok. Hori ere, aurreikusi beharko litzateke ordenantzan. Honen haritik, egokia izan daiteke Orioko Udalak hartu duen neurria:



ORION, ESATE BATERAKO, LOKALA ESKURATZEN DUENAK HITZARMEN BAT SINATU BEHARKO DU UDALAREKIN.

lokala etxebizitza bihurtzen duenak, Orioko Udalarekin hitzarmen bat sinatu beharko du, eta horren arabera, salterakoan ezingo du babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa baino %1,4 gehiago garestitu.

Arau subsidiarioetatik at dagoen neurria

Neurri hau Arau Subsidiario berrietan jasotzea aurreikusi zuten arkitektoek. Baina Arau Subsidiarioen berrazterketa egin zenean, Foru Aldundiak 2004ko irailean zera erabaki zuen: gai hau Arau Subsidiarioetatik kanpo uztea eta lokalen izaera-aldaketa udal ordenantza bidez erregularizatzea.

Udalari dagokio, kasu bakoitza aztertu eta lokal hauen erabilera zein izan behar duen zehaztea.

Bete beharreko baldintzak, uste baino zorrotzagoak

Lokal huts ugari dago Usurbilen. Etxebizitzarena alternatiba izan daiteke lokal horietako batzuentzat, baina ez denentzat. Betebeharreko baldintzak zorrotzak baitira. Garbitasuna, aireztapena eta argitasuna bermatzeko baldintzekin batera, badira kontuan hartu beharreko neurri ugari.

Udal ordenantzan hainbat baldintza zehazten dira. Horietako batzuk dituzue honako hauek.

60 metrokoa, gutxienez

“(...) Zehazki, etxebizitza berriak azalera erabilgarria hirurogei (60) metro karratu baina handiagoa eduki behar duenaren betebeharra azpimarratu behar da”.

Lokalaren jabetzaz

Lokala eskabidearen data baino hamabi hilabete lehenago, gutxienez,

eskuratu duela justifikatu beharko du eskatzaileak.

Bizilagunen oneritzia

Etxe osoko eskriturak aldatu beharko dira (jabetza horizontaleko titulua- ren aldaketa) eta bizilagun guztien oneritzia izan beharko du. Idatzizko oneritzia aurkeztu beharko da udal- txean.

Sarbidea, barrutik

Etxebizitza berriari sarrera barrutik egin beharko zaio, portaletik alegia.

Obra lizentzia

Etxebizitza berria egokitzeko obra lizentzia lortu nahi duen interesatuak eskabidearekin batera proiektu tekniko bat aurkeztu beharko du hitzarmena sinatu eta bi hilabete epean. Proiektu teknikoa, aditu batek sinatu beharko du eta dagokion Elkargoak ikus-onetsi beharko du.



ETXEBIZITZA BERRIARI BARRUTIK EGIN BEHARKO ZAIO SARRERA, PORTALETIK, ALEGIA.

Distantziak

Etxe osoaren paretatik espaloiara edo erreperidera 3 metroko distantziarik ez bada, lokalaren solairua altxa egin beharko da, 1,20 metro. Solairua eta sapaia artean, gainera, 2,50 metro distantzia errespetatu beharko da. Beraz, zenbatzen hasita, guztira, 3,70 metro altuerako lokala beharko du izan.

Kontsulta ugari egin da Udaletxean

Udal ordenantza hasieraz onartu zen 2004ko urriaren 26an. Hilabetez erakusketa publikoan egon zen eta epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatza plenoak laster onartuko du behin betiko izaeraz hizpide dugun ordenantza. Udalak, beraz, oraingoz ezin du lizentziarik eman. Bien bitartean, jendea hasi da Hirigintza departamenduan galdera urbanistikoak egiten.

Esan dugun bezalaxe, Arau Subsidiarioetan jaso nahi zen lokalak etxe bihurtzeko aukera. Baina, azkenean, udal ordenantza bidez erregulatuko da gai hau. Dena den, Arau Subsidiarioetarako prestatu zen txostenean, Luis Renedo eta Jose Mari Bravo arkitektoek neurri hauek zehazten zituzten. Akaso, argigarri izan daitezke interesatuta dauden guztientzat.

“1- Fatxada nagusia eta atzekaldekoaren artean sestra kota aldea solairu bat edo gehiagoko eraikuntzak.

2- Fatxada lerrokaduraraino, bere luzezabal osoan, 3 metroko zona probatua edo gehiagokoa izango dutenak gaur egun edo egokitze ondorengo eraikuntzak, beti ere hau erabilera publiko eta jabari pribatua ez denean.

3- Bere behe solairua, egun edo egokitze ondoren, zoruaren goiko aldea altuera 1'20 metro edo goragokoa duten eraikuntzak.

4- Bere osotasunean bizitza bakarra osatzen duten eraikuntzak.

5- Intimitatea gordetzeko babes fisiko eta begi-lerrokoa osatzen duten, lokal bat edo gehiagorako, zona pribatu elkarbanatua egin ahal izan daitekeen eraikuntzak.

6- Barruko patioa edo bide publiko- ra aukerazko kanpoko espazioa duten, gela haizeberritzea ahalbideratu eta

beste lokal edo gelara 7 metro gutxi- neko zeharkako banantzea duten eraikuntzak.

7- Bere berezitasunagatik, udal zerbitzu teknikoen iritzi, eskatzen den bizigarritasun maila eta begi-lerro babesa bermatzea ahalbideratu dezaketen, eraikuntza interbentzio bidez, zerbitzu teknikoen onespena izango duten eraikuntzak.

8- Bere singularitasun banakakoa edo hiri multzo batean partaide den eta balio arkitektonikoa duten eraikuntzetan, egingo den egokitzeak adierazitako baloreaz duina egiten duen elementu guztiak osoki errespetatu beharko du.

9- Kasu guztietan, bizitzaren familiaritateotasuna bermatu beharko da eta udal teknikarien iritzian hirigintzazko arazo pribatu-publiko erakarriko duten elementu guztiak espreski galaraziko dira”.

Zutik ondo dagoenari eutsiko bagenio... (eta II)

Ugarte bota, eta zertarako? Duela gutxi egin dira 400dik gora etxebizitza Galtzara-gainean, Eguzkitzan, Kalezarren, Txaramuton eta Artzabal aldean; beste 600 egitekoak Olarriondo aldean; beste 200 hutsik omen daude herrian, eta Ugarte bota beharra dago, zer eta 20 bizitza egiteko! Espekulatuzaileek horrelako asmoak izatea ez da harritzekoa, ez baitute dirua beste herririk ez aberririk; horientzat edertasuna, herri baten historiari eta nortasunari zor zaion begirunea eta horrelakoak, txorakeriak baizik ez baitira. Baina herriaren ardura dutenak ez dira espekulatuzaileak, herritarrek dira, herri hontako seme-alabak, herria maite duten ustetan herritarrek hautatuak herriaren ona eta funtsezko baloreak zaintzeko...; ez al daukate espekulatuzaileek proposatutakoaz beste irtenbiderik Ugarte aurrera ateratzeko, behera botatzeko ordez? Gure aurrekoek halako lan eta nekez, baina batez ere maitasun haundiz egindakoak, ez al du gehixeago merezi? Ez al gara haiek egindakoari eusteko ere gauza?

Bestalde, egitekotan diren etxe guztiok beren serbitzuak beharko dituzte, ezta? Etxeak eraikitzean, ohi denez, eraikitzen denaren ehuneko horrenbestekoa herriarentzat utzi behar izaten da lokaletan, serbitzuetarako. Etxe berriostatik horren hurbil egonik, zergatik ez da Ugarte serbitzuetarako gordetzen, Artzabalekin egin den bezala, edo Zarautzen Sanz-Enea jauregiarekin, kultur-etxe bihurtuz, eta beste hainbat herritan, beren eraikin esanguratsuenekin? Gauza jakina baita, antzinako etxeen barrunbeek bezalako xarmarik ezin dutela etxebizitza berriek eskaini, beren erosotasun guztiakin. Antzinakoak gizaldiek edertuak eta goxatuak baitira.

Beste bide bat ere ba legoke. Serbitzuek beharrezkoak direla, ez dago esan beharrik. Begira, adibidez, Ugarte aurrean dauden "Kalexarko eskolak" bezala ezaguna den eraikinari zenbat



“INDIZ SAGAR ETA SAGARDOAREN GAIN MUSEOREN BAT, EDO ORAIN AURREIKUSI EZIN DEZAKEGUN BESTE ZERBAIT EGIN NAHIKO BALITZ, LANIK GARESTIENA ETA ZAILENA EGINA LEGOKE JADANIK”.

eta zenbat eratako probetxua atera zaion eraiki ezkerotik: Urte askotan, nesken eskola; gero, ikastola; orain adinekoen “eguneko zentroa” eta haurtzaindegia; Zumetaren zeramika guztia ere hor egina; rockero gazteen entsaio leku; Erramun Unanue ere hor ibilia omen kirol prestaketak egiten... Besterik ere izango da ni oroitzen ez naizena. Hor dagoelako eraikin hori, hamaika beharrei, sortu ahal, erantzun ahal izan zaie.

Borondate kontua

Ba dakigu, Ugarte bezalako etxe bikaina hutsik geratzen denean, errazegi esaten dela askotan, “herriak har dezala”. Gero jakin behar baita, hartu den horri zer erabilpen eman, egokipen lanak egin, haren kudeaketa, etab. Gagozkion kasuan modu bat izan liteke, orain eskoletako eraikinak betetzen dituen funtzioak Ugartera aldatzea, eta eskoletako orubea, Ugarten egitekoak diren etxebizitzak egiteko erabiltzea. Azalera berdintsukoak izan behar dute bi orubeak, berrehun metro eskax gutxiago eskoletakoak. Beraz, truke gisako bat egiteko ez dirudi eragozpen haundirik egon behar lukeenik kons-

truktora aldetik ere. Borondatea behar udalaren aldetik.

Oraingo serbitzu-guneak, Ugartera aldatuz, haundizki irabaziko luke bai eraikinaren kalitate aldetik, bai leku aldetik ere -gehiagoren jabe askotxo-, baserriaren planta ia bi halako delako eskolarenaren aldean. Bata eta bestearen bolumenak ez dakizkit, baina inoiz eskasian gertatuko balitz baserria, lehenago egin zizkieten antzera etxe-ordetik egin ezinik ez luke, egokiro, baserriaren tankerari kalterik egin gabe. (Ikusi zein bikainki egin zuten haunditze lana Urdaigako Zabalea baserrian, lehengoari eutsiz. Begira honi Gilisagasti baino piska bat beheraxeagotik, edo Txoko-aldeko frontoitik, edo Igartzazabalko aldapatik, ze formen joku ederra! Hor ba da arkitekturarik!, eta hemengorik!).

Baserriak aurrean duen zabalgunea ere ez litzaioke batere gaizki etorriko bertara bildutako jende nagusiarri, ez haurrei. Esan beharrik ez barrengo zurzko egiturak beste dotoretasun eta berotasuna emango liekeela bertan antolatuko litzatekeen edozein gela edo aretore. (Ikusi Txillida-lekun dagoen

Zabalegi baserriari zenbat eratako erabilpena eman dioten eta zer probetxu zoragarria ateratu. Serbitzuez gain, tolaireak eta upeldegiak zutik jarraituko lukete. Beharbada orain ezin da, baina inoiz sagar eta sagardoaren gain museo-aren bat, edo orain aurreikusi ezin deza-kegun beste zerbait egin nahiko balitz, lanik garestiena eta zailena egina legoke jadanik. Ez da ahaztu behar ere, Usurbil ezaguna bada Euskal Herrian, sagardo herri bezala dela ezaguna. Horren aspaldira joan gabe, 1932an, Usurbilek, bere txikian, Tolosak halako bi sagar-dotegi omen zituen, 32, eta Hernani berak baino sei gutxiago. Sagardogintzan, Gipuzkoan zen ospetsuenetakoa izan behar zuen Ugartek. Guzti hau gal-tzeak ez luke izenik.

Astigarragan baleukate horrelakorik, aspaldian eginak zituzten egitekoak eta bost.

Beste zerbait ere aipatu nahi nuke. Duela zenbait aste, beste kalezartzarrei bezala, orritxo bat sartu zidaten buzoian. Bertan, "Ugarte berriaren proposamena" delakoaren bozetoaz gain, udaletxean zer egin asmo dutenaren berri ematen da. Irakurri dudanak harriturik utzi nau. Orritxo horretan, besteak beste, Ugarte botatzearen aldeko zenbait arrazoi ematen da, ene iritziz, zein baino zein arrazoigabekoagoa. Bata da, eraikin zaharrek nolako zailtasunak dituzten eraberritzeko: "ezin altura eman, leihoak ezin zabaldu, garajeak ezin egin...". Beraz, etxea igotzerik ez dago, leihoak zabaltzerik ez, baina etxe guztia jo ta behera botatzea bai? Nire artean esan nuen, Ugartek behintzat ez dik argiarentzat leiho arazorik izango. Joan naiz bada bertara, eta baserriak hiru aldeetan hor ditu 61 leiho lasai lerro-lerro -gehienak harri landuz inguratuak gainera-, horietatik 9 leiho-ate, eta beste 10 ate, gailurpea irekia eta teilatuan luzero zabala du, erdian duen patioa argitzeko. Eguzkia ez da hor behintzat sartu ezinean haserre ibiliko. Beste arrazoia: Dagoen aparkaleku eskasiagatik, "etxe berriak lur-azpiko aparkalekurik gabe egitea lujo insolitario bat da". Baserriaren azpian, noski, ez dago aparkalekurik egiterik. Beraz, baserria

behera; aparkalekuak garrantzitsuagoak dira nonbait. Baina hain zuzen, hor ere, Ugartek 1.200dik gora metro karratuko zabalgunea dauka etxe aurrean; nahiko leku dirudi lur-azpian aparkalekuak egiteko, maila batean ez bada bitan edo hirutan, inpernuraino libre. Orduan, zertarako Ugarte eraitsi beharra?

Herritarren artean utziko lukeen zuloa

Aurreraxeago orritxoak dio udalak 70.000 euro inguru jasoko dituela operazio honekin, eta diru hori Kalezartarrentzat izango dela oso-osorik, aterpe edo frontoi txiki bat egiteko. Hau zer da, umei isiltzeko ematen zaien *chupachus*-a? Iraingarria iruditu zait. Hori idatzi duzuenok uste duzue hainbat mendez zutik bizitu den Ugartek herrian eta herritarren artean utziko lukeen zuloa, frontoi batekin bete ahalko duzuela? Herkideok, pentsa ezazue ongi zer egitera zoazten, damu ez dezazuen bizitza guztian.

Ni nengoen, azken urteotan, usurbildarrek dituzten beharrez gain ari zela eraikitzen Usurbilen, horren modan dagoen desarrollismo histerikoari berdintsu lotuz alderdi batekoek nola bestekoek. Herri baten garapena ez zegoela bazter guztiak etxez jostean eta jendez pilatzean; urte gutxitan bertako biztanlegoa bikoiztuko zela; uholde horren azpian nekez iraun ahalko zuela herriaren nortasunak itho gabe, ez zitzaizkio astirik emango horrenbeste etorri berri beretzeko; ez zitzaigula tiestoetako lurra besterik geratuko... Martxa horretan, apainagoa, baina beste Lasarte bat bihurtzen ari zela gure herria. Bada, delako orritxoak, beste pasarte batean, hona zer dioten: "Azkarregi goazela diote, herria desitxuratuko dugula. Eta guk, alderantziz, mantxoegi joan garela azken urteetan diogu. Gu, aurrera goaz". Ze hotzikara!

"Aurrera" kontu horrekin ere, kontuz, noruntz den zehaztea komeni da. Mendingo gora doana aurrera doan gisan, baldin gailurrera badoa, amildagian behera doana ere aurrera bait doa, baldin beheko errekarra badoa.

Ez nuke bukatu nahi beste aipamen-txo hau egin gabe.



**BASERRIAK HIRU ALDEETAN
61 LEIHO DITU, GEHIENAK
HARRI LANDUZ INGURATUAK.**

Baserri batera sartzen garenean halako giro bero goxo batek biltzen gaitu; ez dakigu garbi zergatik, baina babestuak sentitzen gara bertan, bare eta bakean, amaren altzoan bageunde bezala. Inondik ere, hainbat mendeetan berrera sendiak sendien atzetik bertan bizitutako hainbat poz eta atsekabez, asteko neke eta jaietako atsedenez, barre eta negarrez, baina guztien gaitetik, otoitzez eta maitasunez bustirik baitaude baserriko zola eta hormak, ezkaratza, sukalde, logelak eta ganbara ere. Hor bizitu zirenen arnasa nagusi txoko guztietan.

Baserri bat hutsik geratzea gertakari triste da, bihotz-erdiragarria, bizitzaz beterik egoteko eraikia izan baitzen, eta inguruko lurak lantzeko eta zaintzeko. Orain lurak umezurtz daude eta, horren emankor zirenak, antzu hormigoipean, eta baserria, alargun, seme-alaba guztiak aldegin dioten ama bezala. Baina, zutik den bitartean, amak ez du inoiz etsitzen; zain dago beti leiho atzean, leihotik begira etxea berriro biziberrituko diotenak noiz itzuliko, noiz bere altzoan bilduko...

Behatokiaren esanetan, "Europako Itun Konstituzionalean ez da hizkuntz eskubideen aipurik jasotzen"

Hizkuntza eskubideak giza eskubideak eta oinarriko eskubide dira, eta horien aipamenik ez da egiten Europako Itun Konstituzionalaren testuan. Hala dio Hizkuntza Eskubideen Behatokiak "Europako Itun Konstituzionalaren azterketa hizkuntza eskubideen ikuspegitik" izeneko txostenean.

Arantzazu Haranburu Hizkuntza Eskubideen Behatokiako kudeatzailea da. Bere ustez, "desoreka handia da, izan ere Europan 60 hizkuntza komunitate dagoela esan ohi da, baina Itunean 21 besterik ez dira agertzen hizkuntza ofizial gisa". Europako Batasunaren definizioari dago-

kionez, "errespetuak ez du inolako oinarri juridikorik eragiten, ezta hizkuntza politikak abian jartzeko beharrik ere".

Behatokiak atera dituen ondorioak eta gabeziak gainditzeko proposamenak agertu ditu Paul Bilbaok, Behatokiako zuzendariak:

-Ezinbestekoa da hizkuntza eskubideak jasotzea, bereizkeriarik eza bermatzeko beharrezkoa baita.

-Aniztasunaren definiziorik ez dago; ondorioz zaildu egiten du hizkuntzen beharrei erantzutea eta plangintza egokituak egitea. Aniztasunaren definizio oreketa eta errealia jasotzea beharrezkoa da, berezko hizkuntzen artean hierarkiarik egon ez dadin.

-Hizkuntza erabiltzeko eskubidea 21 hizkuntzatarara mugatzen da; beraz, euskal herritarren hizkuntz eskubideen urraketa legez arautzen da.

-Hizkuntzari status ofiziala ez esleitzeak normalizazioa galgatu edo gelditu dezake.

Txosten osatua honako helbide honetan aurki daiteke: www.behatokia.org



BEHATOKIKO KIDEAK, TXOSTENAREN AURKEZPENEAN

Aginagakoek Usurbila etortzen jarraitu beharko dute

Otsailaren 20an, erreferendumeko kontsultapean jarriko da Europarako konstituzioa ezarzen duen ituna.

Honi lotuta, Hauteskunde Batzorde Probintzialak Usurbilgo hauteskunde-sekzio, mahai eta aretoen zerrenda zehaztu ditu. Aipatzekoa da hurrengo hauteskundetan mahai bat gehiago izango den arren, Aginagakoak Usurbila etortzen jarraitu beharko dutela.

| BARR. | ATALA | MAHAIA | LETRAK | |
|-------|-------|--------|--------|-------------------------|
| 1 | 1 | A | A-E | Usurbilgo Udala |
| 1 | 1 | B | F-M | Usurbilgo Udala |
| 1 | 1 | C | N-Z | Usurbilgo Udala |
| 1 | 2 | A | A-K | Usurbilgo Udala |
| 1 | 2 | B | L-Z | Usurbilgo Udala |
| 1 | 3 01 | A | A-K | Kalezar- Udarregi Zahar |
| 1 | 3 01 | B | L-Z | Kalezar- Udarregi Zahar |
| 1 | 3 02 | C | A-Z | Kalezar- Udarregi Zahar |

Kale Nagusia, 10
Tel: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritzixo Kalea, 8 Tel: 943 363 348
Behera Mugikorra: 609 888 921

MIKEL

IZ GI E

ELEKTROTE

01 01 7
Rte
el 11 - 11 111

SE IG FI
T M G FI

OSU

IN YST I ET
I C K I SE XG FI
K MOSEJEN IN EM XEL

TABERNA-JATETXEA

NTXET

EGUZKITZ
2.17 OSU II.

Tel. 3 37 3

- E un r k m nu k
- t r t k k
- l t r K n n tu k

LATXA

Kutxa denda

Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktua

Zubiaren 2, Urdul Tel. 665 301 803

“Usurbilgo baserriak eta baserritarrak” liburuari buruz zenbait argibide

Denok badakizue argitaratu berria dugun liburuaren hasieran eskerrik beroenak ematen nituela laguntza eman didaten usurbildar (eta ez usurbildar) guztiei. Bada, alabaina, beste pertsona mota bat eskertu beharrekoa. Kanpo lanean aritu nintzenean, ez nituen bertako batzuk ni agertutako unean, bere etxean aurkitu, edo ez genuen kointziditu. Eta hauen artean oraintsu ezagutu ditut benetan lagun baliotsuak, informazio, datu eta argazkiak prestatuko zizkidatenak, elkar une hartan topatu izan bagina... Zalantzarik gabe, zenbait kondaira mamitsu eta politikak gehituko nituen baita argazki interesgarriak ere, nire eskerrik hoberenak ematen dizkiet lerro hauen bidez. Eta ziur egon daitezela nire zenbait lanetarako beraiekin kontatuko dudala.

Badakit zenbait pertsonen datuak ez

direla beharbada erabat zuzenak eta horrek mindu dezakeela. Baina ezinezkoa da jasotako datu eta informazio guztiguztiak kotejatzea. Informatzaileek azaldu bezala eta ahalik eta fidelen erreflejatutitut textuetan, eta uste dut ez dela gezurrik azaldu. Badakit, era berean, pertsona batzuk ez direla azaldu ez nik horrela nahi izan dudalako, haietaz informaziorik ez nuelako baizik.

Bestalde, eta izengoitiei buruz, esan behar dut etnografia alorrean elementu jakingarria eta garrantzi handikoa dela. Zeren ez baita pertsona edo etxe baten ezizena bakarrik, baizik eta pertsona hura nola zen eta eta zer egiten zuen edota etxe hartan zer gertatu zen edo zer bizimodu zuten, eta mila informazio eman dezakeen datua baizik. Hau dena esaten dut kexu bat jaso dudalako –kexa bakarra azpimarratu nahi dut- gai honi buruz. Liburuak izan duen harreraren-

gatik garbi dagoela pentsatzen dut izengoitiak gure herriaren jakinduriaren eta historiaren parte direla izenak, ohiturak, ekintzak, jaiotzak eta hilketak diren bezalaxe, eta ez dagoela inongo aldetik gordetzen ibili beharrik.

Bizitza horrela da, bere alde argiak eta ilunak ditu. Liburuak sentimenduak ikutzen ditu eta oroitzak onak eta garrazak ekartzen burura. Gure herriko historian gerra guztiak galdu ditugu baina hori ez da arrazoia historia gordetzeko eta jakiteari uko egiteko.

Josu Tellabide

NOAUA!ren oharra: *Norbaitek informazio, argazki edo beste zerbaitek gehiago gehitu nabiko balu, NOAUA!ra etor dadila. Liburuak noaua.com web gunean zintzilikatzekotan gara eta bertan izango da hori guztia jartzeko aukera.*



autonomoentzako eta mikroenpresentarako doako **mintegiak**

Donostialdea
martxoak 1
HERNANI
Hernani BHI (EPO)
Karmelo Labaka Eraikina

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

**Zure negozioan, atera probetxua
telefonía mugikorrari.**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Telefono mugikorra eguneroko lanean funtsezko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioko informazioa egunean edukitzeko, gailu eta aukera berrien** bidez eskaintzen dituen erabilera eta aplikazioak erakutsiko dizkizugu. Honela, alferrikako deirik edo bidaiarik egin ez dezazun.

Sustatzaileak:



Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Logos of supporting organizations: Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria, Euzko Legebiltzaria.

Oinarrizko eskubideak eta eskubide politikoak aldarrikatzeko, protestaldian dira euskal presoak

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) protestaldi berri bati hasiera eman zion urtarrilaren 3an. 10 minutuko plantoa egin eta gero, txandakako itxialdiei ekin zioten. 10 egunetako txandakako itxialdi horietan, ziegatik ateratzeari uko egi- ten diete protestan diren presoek.

Joxe Domingo Aizpuruak eta Patxi Seguroiak jada "txapeoa" edo 10 eguneta- ko protestaldia egin dute. Otsailaren 13an, Karlos Martinek ekin zion itxialdiari. Otsailaren 23an, aldiz, Jokin Errastik, Oihana Lizasok eta beste hainbat presoek hartuko dute borrokaldiaren lekukoa. Martxoaren 4ko txandan, Ramon Uribe- k ekingo dio itxialdiari.

Txandakako protestaldi hau amaitzean, 12 eguneko gose grebari ekingo dio euskal presoek kolektiboak.



OTSAILAREN 12AN, EUSKAL PRESOEN ALDEKO GIZA-KATEA EGIN ZEN.

Status politikoa

Urte hasieran, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak argitaratu zuen agiriak dioenez, *"ekintza bateratu honen bitartez, gure kolektiboak borroka dinamika iraunkor bati ekin dio. Sakabanaketaren kontrako borrokan aro berri bati ekin dio. "Nahikoa da!" esateko tenorea iritsi da."*

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, halaber, status politikoaren aldarrikapena egin nahi du: *"isolamendu politikoarekin amaitu eta status politikoa aplikatuz gero, eragingo dugu emankorren gatazkaren konponbide demokratiko baten alde, justizian eta autodeterminazio eskubidean oinarritu- rik"*, hala dio protestaldi hasieran EPPK-k argitaratutako agiriak.

Protestaldiaren aldarrikapen nagusiak

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

- Isolamendurik ez
- Bakartzeari ez
- Jipoirik ez
- Gaixo dauden presoak etxera
- Baldintzapeko askatasuna
- Ikasteko eskubidea
- Komunikazio murrizketei ez
- Hizkuntza eskubidea (euskaraz bizi eta komunikatu)

ESKUBIDE POLITIKOAK

- Elkartzeko eskubidea
- Mintzakidetzaren aitortza
- Kolektiboak bere burua antolatzeko eskubidea
- Kolektibo bezala, gainontzeko eragile politikoekin harremanatzeko eskubidea
- Euskal eztabaida eta erabaki guneetan parte hartzeko eskubidea

PATxi

JATETXEA

- Eguzkeroko menuak
- Plater buntatuak
- Ogitarteak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14



Etxeak 1,3
Tel: 33 11

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Zendoia



Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71

Andatzpe-Peña Pagola elkarteak, Berria Pilota Txapelketatik at

Otsailaren 12an jokatu ziren Berria Txapelketako finalurdenak. Aginagako pilotalekuan, aurrez aurrez, Andatzpe-Peña Pagola eta Gernikako Arkupe. Estu-estu izan bazen ere, Gernikako pilotariak irabazi zuten kanporaketa.

Klub arteko txapelketa honetan, kadeteak, jubenilak eta seniorrak lehiatu ohi dira. Partida guztiak zenbaitzen dira eta emaitza onenak erdiesten dituen taldeak egiten du aurrera. Azkenean, 4 tantorengatik, kalera joan ziren usurbildarrak.

Dena den, iaz baino hasiera hobea izan zuen Andatzpe-Peña Pagola elkarteak. Iaz, lehen jardunaldia baino ez zuen jokatu. Honakoan, ordea, final laurdenetan amaitu da gure pilotarien ahalegina.

Infantilak, Eskualdeko Txapelketako finalean

Jokin Irastorzak, Xabier Santxok eta Julen Etxeberriak eskualdeko finala jokatu berri dute.

Pilota kontuekin jarraituz, Udaberri Txapelketa aipatu beharra dago. Euskal Ligatik kanpo geratzen diren taldeek Udaberri Txapelketa jokatu ohi dute.



ASIER ARRUTIK, ORDEA, 22 URTE AZPIKO BI FINAL JOKATUKO DITU ASTEBURU HONETAN, LEZAMAN ETA MUNGIAN.

Aste Santua bitartean, Andatzpe Peña-Pagola taldeko kadeteak, nagusiak eta paleta-gomako pilotariak ligaxka moduko bat jokatu dute. Zorte on!

2004 URTEAN ERE, ONENEN ARTEAN USURBILGO JUDO TALDEA

Usurbilgo Judo Taldearentzat, emaitza onez beteriko denboraldia izan da 2004garrena. Espainiako txapelketetan 16 domina eskuratu ditu Usurbilgo taldeak. Saillkapen orokorrean, hirugarren talde onena izan da Esteban Arrillagak zuzentzen duen taldea. Azken hilabeteotako emaitzak www.noaua.com orrialdean topatuko dituzue.



Aitzaga pilota txapelketa, azken txanpan

Asteburu honetan amaituko da Aitzaga elkarteak antolatutako duen lau t'erdiko pilota txapelketa. Otsailaren 19an, larunbata, arratsaldeko 18.00etan hasiko dira eskuz binakako finalak.

Lehenik, hirugarren postuarengatik lehiatuko dira bi bikote hauek:

Ibarreta-Urdanpilleta eta Aintzi-Igor. Ondoren, finalaz gozatzeko aukera izango dugu. Aurrez aurre arituko dira, herriko pilotalekuan, Leko-Arroyo eta Arkaitz-Loidi bikoteak.

Txapelketa hasieran, 10 bikote izan ziren izena eman zutenak. Otsailaren 19an jakingo dugu nortzuk jantziko dituzten garaileentzako txapelak.

K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

TXIRIBOGA

TABERNA

ntx k, k t k
t l r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70

ZUMET MENU K

(Gutx n z 21 un nez t)

- Etx k h t f - r n s t
- u r r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z ux n urr z t r k s s k
- s lts z
- s z u n t t u r n t k l
- r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n s t n
- t k f

T x k 1, 11, 3 27 13

r z 27, 5 ur (rts n k)



Guraso Eskola antolatu da Kalezargo Haur Eskolan

Guraso Eskola 0-3 adin tarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua dago. Kalezargo haurren gurasoei gune bat eskaintzea da helburua; egunerokotasunean seme/alaben heziketaren inguruan sortzen diren kezak elkartrukatzeko "topalekua" sortzea. Aldiz, gurasoen betebeharrak bakarrik, gogoa eta hilabetearen behin parte hartzeko konpromisoa hartzea litzateke.

Eskolan honetan, gurasoekin batera, 0-3 adin tarteko haurren heziketan aditua den profesional batek hartuko du parte. Gurasoak izango dira protagonista, baina Guraso Eskola bideratuko duen pertsonaren ardura taldea dinamizatzea izango da: hitz egiten diren gaiak laburbildu, zalantzak eta galderak argitu... Gurasoen jakinmina asetzea, labor esanda.

Guraso Eskola bi ataletan bereizturik egongo da. Batetik, masajerak egingo dira. Bestetik, interesgarriak diren gaien inguruko solasaldiak sustatuko dira.

Guraso Eskolako saioak hilabetearen behin egingo dira, ordu eta erdiz, eta Haur Eskolan bertan.

Komunikazio egokia landu

Jose Ramon Mauduit psikologoa izango da Guraso Eskola honen gidaria. Aditu honek esan digunez, haur eta gurasoen arteko hartu-emanak sendotzean oinarrituko da ikastaroa. Nola bideratu haur eta gurasoen arteko harremana era goxoenenean, gertuenean. "Haurrak, txikiak direnean, zer nolako atentzioa behar duten azaltzen saiatuko naiz", adierazi digu Mauduit



0-3 ADIN ARTEKO HAURREN HEZIKETAN ADITUA DEN PROFESIONAL BATEK HARTUKO DU PARTE.

psikologoak. Izan ere, behar horietara egokitzean datza guraso eta seme-alaben arteko komunikazio egokia.

Izena emateko epea zabalik

Lan kontuak direla eta, azken urteotan, gero eta lehenago uzten dira haurrak eskolan. Honek kezka eragin du hainbat gurasoengan; ondorenean sor daitezkeen komunikazio arazoak beldur dira. Guraso Eskola honen bidez, "haurrarekiko hartu-emanak nola indartu daitezkeen azalduko dugu", azaldu digu Mauduit psikologoak.

Guraso Eskola otsailaren 16an hasi zen, baina oraindik zabalik dago izena emateko epea. Eskolak hilean behin emango dira, ordu eta erdiko saioen bidez. Parte hartu nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak, Haur Eskolara deitu dezala ahalik eta azkarren: 943 37 40 61.

Elikadura hizpide

Guraso Eskola ez ezik, elikadurari buruzko jardunaldiak ere antolatu ditu Haur Eskolak. Eko Nekazaritza elkartearen eskutik, elikadura osasuntsu eta orekatu bat zein garrantzitsu den ohartarazi nahi da. Juan Gondrak eman zuen lehen hitzaldia otsailaren 9an. Datorrena, martxoaren 3an izango da, Blanca Garcia alergologaren eskutik.

Martxoak 3, osteguna: Blanca Garcia, alergologa. Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanean dihardu eta zenbait elikagaik gizakiaren gorputzean sor dezaketen erreakzioez hitz egingo du.

Hitzaldia, Haur Eskolako aretoan, 18:00etan hasita.

TX
r t
PINTX E EZI K
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

I n t n n - z r m u n l k
BEMARAKOAK
BEMINIK MAJOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

ITURGINTZA
J SE
NGU EN
Telf 3 3 72

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

**GIPUZKOA
ZURE
ESKU**
Mahai jokoa
eta CD-ROMa

**ERDI AROA
EUSKAL HERRIAN**
Ikasi jolastuz
CD-ROM interaktiboa



Lehiaketan parte hartzen duten guztien artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu.

Zer ospatu zen otsailaren 8an herriko kaleetan zehar?

- 1) INAUTERI JAIA
- 2) SANTA AGEDA ESKEA
- 3) ANGULAREN EHORZKETA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **OTSAILAK 25**
Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170
Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkartearen buzoian edo
e-posta: erredakzioa@noaua.com

198. lehiaketako erantzuna:
Urtamilarren 12an Zubietako Garraio Zentroko kamioientzako eta garrailoan autoentzako aparkalekua inauguratu zen. Ba al dakizu guztira zenbat aparkaleku egin dituzten? **308**

Irabazlea **MERTXE GIMENEZ** izan da.
2 musika cd-z osatutako *Euskadiko Soinuak 2004*,
Freexkue umorezko liburuxka eta 2005eko
Argiako egutegia irabazi dituz. **ZORIONAK!** Jaso ezazu
saria Noaua!ko egoitzan.



Iñauteriak 2005

Kaixo irakurle: gu 6. mailako ikasleak gara eta Iñauteri eguna gutxi gora behera nolakoa izan zen kontatuko dizugu. Goizeko 10:00ak aldera abiatu ginen megafoniako kotxearen atzetik dantzan.

Frontoian 4. mailakoek beren dantza egin zuten eta amaitu zute-nean bidea jarraitu genuen.

Erreka Txikin egin zuten dantza eta guk Kalezarren egin genuen gurea.

Errotondara iristean, Haur Hezkuntzakoekin Santa Agedako abesti batzuk abestu genituen eta amaitutakoan kiroldegirantz abiatu ginen, DBH-koak gure zain baitzeuden kiroldegira sartzeko.

Dantza guztien ostean txiki eta handi, elkarrekin, Santa Agedako abestiak abestu genituen.

Festari amaiera emateko "desfilatuz" kanpora irten ginen.

Oso ondo pasa genuen!

6. mailako neska-mutilak



Eusko Tren-en tren ordutegia

| Donostia | Usurbil | Zarautz | Zarautz | Usurbil | Donostia |
|---------------|---------|---------------|---------------|---------|---------------|
| 05.47* | 06.03* | 06.20* | 06.08* | 06.24* | 06.39* |
| 06.17* | 06.33* | 06.50* | 06.38* | 06.54* | 07.09* |
| 06.47* | 07.03* | 07.20* | 07.08* | 07.24* | 07.39* |
| 07.17 | 07.33 | 07.50 | 07.38* | 07.54* | 08.09* |
| 07.47 | 08.03 | 08.20 | 08.08 | 08.24 | 08.39 |
| 08.17* | 08.33* | 08.50* | 08.38* | 08.54* | 09.09* |
| 08.47 | 09.03 | 09.20 | 09.08 | 09.24 | 09.39 |
| 09.52/ | | 10.21/ | 10.05 | 10.24 | 10.39 |
| 10.17 | 10.33 | 10.50 | 11.08 | 11.24 | 11.39 |
| 10.47 | 11.03 | 11.22 | 11.22/ | | 11.47/ |
| 11.51 | 12.05 | 12.20 | 12.08 | 12.24 | 12.39 |
| 12.17* | 12.33* | 12.50* | 12.38* | 12.54* | 13.09* |
| 12.47 | 13.03 | 13.20 | 13.08 | 13.24 | 13.39 |
| 13.17* | 13.33* | 13.50* | 13.38* | 13.54* | 14.09* |
| 13.47 | 14.03 | 14.20 | 14.08 | 14.24 | 14.39 |
| 14.17* | 14.33* | 14.50* | 14.38* | 14.54* | 15.09* |
| 14.47 | 15.03 | 15.20 | 15.08 | 15.24 | 15.39 |
| 15.17* | 15.33* | 15.50* | 15.38* | 15.54* | 16.09* |
| 15.47 | 16.03 | 16.20 | 16.08 | 16.24 | 16.39 |
| 16.17* | 16.33* | 16.50* | 16.38* | 16.54* | 17.09* |
| 16.47 | 17.03 | 17.20 | 17.08 | 17.24 | 17.39 |
| 17.17* | 17.33* | 17.50* | 17.38* | 17.54* | 18.09* |
| 17.47 | 18.03 | 18.20 | 18.08 | 18.24 | 18.39 |
| 18.17* | 18.33* | 18.50* | 18.38* | 18.54* | 19.09* |
| 18.47 | 19.03 | 19.20 | 19.08 | 19.24 | 19.39 |
| 19.17* | 19.33* | 19.50* | 19.38* | 19.54* | 20.09* |
| 19.47 | 20.03 | 20.20 | 20.08 | 20.24 | 20.39 |
| 20.21/ | | 20.48/ | 21.08 | 21.24 | 21.39 |
| 20.47 | 21.03 | 21.20 | 22.07/ | | 22.32/ |
| 21.47 | 22.03 | 22.20 | 22.38 | 22.54 | 23.09 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Oharra: urtarilaren 29tik martxoaren 9ra autobusez beteko da Usurbil-Amara arteko tren zerbitzua. Autobusa tren geltokitik irten eta tren geltokira iritsiko da.

Eusko Tren-en autobus ordutegia

| Donostia | Urbil | Usurbil | Zarautz | Zarautz | Usurbil | Urbil | Donostia |
|----------|-------|---------|---------|---------|---------|-------|----------|
| 07.40 | | 08.05 | 08.25 | 06.45 | 07.05 | | 07.30 |
| 08.00 | | 08.25** | | 06.45 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 08.00 | 08.25 | 08.35 | 08.55 | 07.15 | 07.35 | | 08.00 |
| 08.40 | | 09.05 | 09.25 | 07.45 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 09.00 | 09.20 | 09.30 | | 08.15 | 08.35 | | 09.00 |
| 09.00 | 09.25 | 09.35 | 09.55 | 08.45 | 09.05 | 09.10 | 09.40 |
| 09.40 | | 10.05 | 10.25 | 08.45 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 10.00 | 10.25 | 10.35 | 10.55 | | 09.30 | 09.35 | 10.00 |
| 10.40 | | 11.05 | 11.25 | 09.45 | 10.05 | | 10.30 |
| 11.00 | 11.25 | 11.35 | 11.55 | 09.45** | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 11.40 | | 12.05 | 12.25 | | 10.30 | 10.35 | 11.00 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25** | | 10.45 | 11.05 | | 11.30 |
| 12.00 | 12.25 | 12.35 | 12.55 | 10.45 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 12.40 | | 13.05 | 13.25 | 11.45 | 12.05 | | 12.40 |
| 13.00 | 13.20 | 13.30 | | 11.45 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 13.00 | 13.25 | 13.35 | 13.55 # | 12.45 | 13.05 | | 13.30 |
| 13.40 | | 14.05 | 14.25 | 12.45 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 14.00 | 14.20 | 14.30** | | | 13.30 | 13.35 | 13.55* |
| 14.00 | 14.25 | 14.35 | 14.55 | 13.45 | 14.05 | | 14.30 |
| 14.40 | | 15.05 | 15.25 | 13.45 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 15.00 | 15.20 | 15.30 | | | 14.30 | 14.35 | 15.00 |
| 15.00 | 15.25 | 15.35 | 15.55 | 14.45 | 15.05 | | 15.30 |
| 15.40 | | 16.05 | 16.25 | 14.45 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 16.00 | 16.25 | 16.35 | 16.55 | | 15.30 | 15.35 | 15.55* |
| 16.40 | | 17.05 | 17.25 | 15.45 | 16.05 | | 16.30 |
| 17.00 | 17.25 | 17.35 | 17.55 | 15.45 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 17.40 | | 18.05 | 18.25 | | 16.30 | 16.35 | 17.00 |
| 18.00 | 18.20 | 18.30 | | 16.45 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 18.00 | 18.25 | 18.35 | 18.55 | 17.45 | 18.05 | | 18.30 |
| 18.40 | | 19.05 | 19.25 | 17.45 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25** | | 18.45 | 19.05 | | 19.30 |
| 19.00 | 19.25 | 19.35 | 19.55 | 18.45 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 19.40 | | 20.05 | 20.25 | | 19.30 | 19.35 | 20.00 |
| 20.00 | 20.20 | 20.30 | | 19.45 | 20.05 | | 20.30 |
| 20.00 | 20.25 | 20.35 | 20.55# | 19.45 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 | 20.45 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.00 | 21.25 | 21.35 | 21.55 | 21.15 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |
| 22.15 | 22.35 | 22.45 | 23.05 | 21.45 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| 22.00 | 22.25 | 22.35 | 22.55 | 23.15 | 23.35 | | 00.00 |
| 22.30 | 22.55 | 23.05 | 23.25 | 01.15 | 01.35 | | 02.00 |
| 00.00 | | 00.25 | 00.45 | 03.15 | 03.35 | | 04.00 |
| 02.00 | | 02.25 | 02.45 | 05.15 | 05.35 | | 06.00 |
| 04.00 | | 04.25 | 04.45 | | | | |
| 06.00 | | 06.25 | 06.45 | | | | |

**Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiarra

*Aiatak dator # Asteburutan
 ■ Soilik ■ Larunbat
 ■ larunbata gauz ■ lanegunetan

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 18, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 19, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 20, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 21, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 22, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 23, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 24, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 25, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 26, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 27, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 28, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 1, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 2, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 3, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 4, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 5, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 6, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan gaueko goardiako farmazia guztiak
Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla,
Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

| Martxo | | | | | | |
|--------|-----|-----|-----|------|-----|-----|
| As. | Ar. | Az. | Os. | Ost. | La. | Ig. |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

Hurrengo alca ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak.... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldedia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

-Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak dauzkatz salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen

da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Ikastolen Elkarrekin uztailaren burutuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea. Izen emate epea: martxoak 11. Non: Ikastolen Elkarrekin, 94 4354340 /www.biekastola.net.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gaez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762.
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarrekin. 943444702.
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AI matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.

JAIOTZAK

- Olatz Zabaleta Ugarte Urtarrilaren 26an.
- Leire Illaramendi Somaza Urtarrilaren 28an.
- Mikel Eizagirre Camino Otsailaren 4an.
- Oier Ikatzeta Arriola Otsailaren 8an.

HERIOTZAK

- Nikolasa Aizpuru Beristain 2005eko otsailaren 2an hil zen, 78 urte zituela. Kale Nagusia.
- Consuelo Otegi Izagirre 2005eko otsailaren 11n.



Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

Zorionak Jokin!

Hilaren hasieran zure urtebetetzea izan dela eta, herritik zorionak eta besarkada handi handi bat! Zuen borrokaekin bat eginez; Estatu politikoaren alde, Euskal Presoak Euskal Herrira!! Eutsi goiari eta Jo Ta Ke irabazi arte!!



Zorionak Goizane!

Otsailaren 11n zortzi urte bete zenituen. Zer uste zenuen ahaztuta geundela? Opariak gustokoak izatea espero dugu eta, berandu bada ere, zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak aitona Luisi eta Jon, Iñigo eta Onintzari familia osoaren partetik. Ondo igaro zuen eguna.



Aupa Eneritz!

Otsailaren 7an 13 urte bete zenituen. Zorionak zure koadrilaren partez!



Zorionak Xaxpi!! Zazpi baino gehiago erori zaizkin baina oraindik beste urte bete daukan hiru hamarkada betetzeko. Ea ba etxekoez gain, beste lagunetaz ere goatze haizenan. Bakin esker onekuak geala eta ez deula asko behar bestarako. Muxu bat!



Zorionak bikote!

Otsailaren 23an Ellandek 18 urte egingo ditu eta otsailaren 26an aitona 81. Zorionak etxekoan partez eta egun on bat pasa dezazuela!



M N CENILL
k r - n t u r t
l l l n k
r z l z - l i u k
n t u r - l u k r h r
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66

N • I
Il n
MIST
S l r u n , l z ,
m k ! t m n k u r
Zu urr n , 5 - 33 1 51

Urtinea
I r k - l r l n r k
L r s r l k - K r k
San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Ingurua - Gasa - Heriotza
J. r z
Bizkarra 1, 1.esk.
37 29 37 - 659 602789

Agenda !

Otsailak 18, ostirala

- Mugaldekoak, Udarregi Ikastolan, 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea. (Otsailaren 11n ordez).

Otsailak 20, igandea

- Erreferendumeke kontsultapean jarriko da Europarako konstituzioa ezartzen duen ituna.


Martxoak 3, osteguna

- Blanca Garcia, alergologa. Haur Eskolako aretoan, 18:00etan hasita.

Martxoak 4-6

- Sagarrondotik 2005 Jaialdia. Informazio gehiago, sagarrondotik.com web orrialdean (eta datorren alean).

Literaturaren txokoa !



1936ko gerra, haurrei kontatua

Haurrek maiz galdetzen dute zergatik gertatu den gerra bat edo beste. Helduei egin ohi dizkiete galderok, baina helduok, maiz, ez dugu jakiten zer erantzun. Iñaki Egañaren liburu berria iluntasuna argitzera dator, kasu honetan Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrian eragindako sarraskia aint-



tzat harturik. Modu single eta arin batean azaldurik, helduarentzako zein haurarentzako ulertzen gaitzak diren pasarteak argitzen saiatu da. Hamahiru urtetik aurrerakoentzat.

Fitxa teknikoa:

Izenburua: "1936ko gerra haurrei kontatua".

Egilea: Iñaki Egaña.

Hizkuntza: euskara.

Orrialde kopurua: 66.

Salneurria: 10 euro.

Egin kontu !

Martxoaren 16an iritsiko da Korrika gure artera

Martxoaren 10ean abiatuko da **M**orreagatik Korrikaren 14. edizioa. 2.150 km egin ondoren, Bilbon amaituko da Korrika. Baina lehenago, martxoaren 16an gure arte-tik igaroko da Korrika.

Goizean goiz, 7:15ak aldera iritsiko da Korrika Zubietara. Lasarte-Oriatik Araeta bidean jasoko dugu

Korrikaren lekukoa. Santuenea, Kalezar, Kaleberri eta Atxegalde igaro ondoren, Aginagarako bidea hartuko du Korrikak.

"Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai!" lemapean abiatuko da Korrika. Orain dela gutxi zendu den Andolin Eguzkitza izango da aurtengo omendua.

KzGunea

IKASTAROAK NAGUSI WEB (20 ordu)

1. Otsailak 21-25, arratsalde, 16:00-18:00. (Euskaraz).

AZTERKETAK

1. IT Txartela. Otsailak 28 astelehena, goizez, 11:00-13:00.

MINTEGIAK

1. "Sarean Lagundu", martxoak 2 asteazkena, goizez, 11:00-13:00. (Euskaraz).

2. "Interneten Bilatu", martxoak 4 ostirala, goizez, 11:00-13:00. (Gaztelaniaz).

Oharra: Otsailaren 28tik martxoaren 4a arte, eta martxoaren 7tik martxoaren 11a bitartean, goizeko 09:00etatik 11:00etara, Lanbide Eskolakoentzat bakarrik egongo da irekita KzGunea.

Ziortza, berriz ere martxan

Otsailaren 19an, arratsaldeko 16:30ean hasiko da Ziortza Gazte Elkartearen ikasturte berria. Ikasturte berri honetan, aipatzekoa da ekintzak asteburuetan izango

direla. Ziortzak 1990 eta 1992 urte bitartean jaiotakoak animatu nahi ditu. Bertaraten direnek, larunbata arratsaldean ondo pasatzeko aukera izango dute.


LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Muntapax kalea, 16 behea
(Artxabal) 945 26 09 80

ANDONI PINTURAK
Fabra eta
barnelantetan Especializatua
C/Etxeberri, 8
(Kalezar)
Usurbil
Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

Knk l
- l. ntz r
- Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
luzun k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7


EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Zain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!



Saizar
Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 39
48940
E S U R B I L
G I P U Z K O A
Tel. 943 362 228
WWW.sidrassaizar.com



Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 7 an irekiko degu.

TEL: 943 36 17 09

LOW ASTIAZARAN

UDARRREGI IKASTOLA



PARTAIDE
IKASTOLAK



MATRIKULAZIO EPEA:

Otsailak 14tik -
25ra



2-16 URTE BITARTE:

- D EREDUA
- INGELERA 4 URTETIK AURRERA
- ORIENTABIDE ZERBITZUA
- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK



- JANGELA
- GARRAIOA
- ESKOLA KANPOKO JARDUERAK

Dei ezazue telefono zenbaki honetara: 943 36 12 16
943 36 37 43 (fax)

usurbil@ikastola.net